


# LA SALVE BILBAO S.L:

## KMO GARAGARDOAK: legamiak berrerabiliz




Eduardo Saiz Lekue  
eduardo@lasalvebilbao.com  
606350022

<https://www.lasalvebilbao.eus/>

 **Jarduera:** La Salvek hainbat garagardo mota ekoizten, banatzen eta merkaturatzen ditu 1886tik, eta gaur egun Euskadiko garagardo ekoizlerik handiena da. 0 km-ko garagardoa egiten da urte osoan, eta, horretarako, jatorri hurbileko lehengaia hautatzeko eta elaboratzeko prozesu zorrotza egiten da.

 **Sektorea:** Producción, distribución y comercialización de cerveza

 **Enplegatutako pertsonen kopurua:** 6

 **Lokalizazioa:** Edificio Centro Empresarial PB-1, Telleria 31A, 48004 , Bilbao - Bilbo, Bizkaia

**EUSKADI mailako berrikuntza INKREMENTALA****Zergaitik izango litzateke berrikuntza kasu praktiko bat?**

Prozesu aitzindaria delako garagardoaren industrian; izan ere, egungo ekoizpen-prozesua eraldatzen du, behin erabiltzeko legamia erabiltzeari utzi eta legamiak berrerabiltzen baititu. Horrela, La Salve garagardo-ekoizpenaren jasangarritasunari eta karbono-aztarnaren murrizketari ez ezik, prozesuaren errentagarritasunaren hobekuntzari ere laguntzen zaio, ekoizpen-kostuak murriztuz eta produktuen hobekuntza organoleptikoan lagunduz.

**KASU PRAKTIKOARI BURUZKO INFORMAZIO ZEHATZA**

2014an, La Salvek berriro ekin zion lan-jarduerari, eta hurrengo urtean, aliantza bat hasi zuen Azti zentro teknologikoarekin, industria-arloan berrikuntza-proiektu batzuk identifikatu eta definitzeko, betiere konpainiaren funtsezko balioen inguruan: 0 km-ko garagardoa eta produktuaren kalitatea. Identifikatutako proiektuen artean zegoen garagardoaren ekoizpen-prozesutik eratortzen diren legamia berrerabilgarriak sortzea.

2019. urtearen hasieran, La Salvek proiektu hori abian jartzea erabaki zuen. Lehenik eta behin, garagardo-enpresak legamiaren hornitzaileekin hitz egiten du, sortutako legamia nola eta zein baldintza teknikotan mantendu behar zen ikertzeko (denborak, presioak, tenperaturak eta legamiaren ontzi-aldaketaren abiadurak produkzio-prozesura itzultzeko). 2020ko maiatzean, La Salve harremanetan jartzen da bere bazkide Mahou-San Miguel enpresak Burgosen duen fabrikako zuzendariarekin, proiektuaren berri emateko eta prozesuan parte hartzeko. Mahou-San Miguelek Burgosko fabrikako garagardogile maisua eta bere departamentu teknikoa eta laborategiko saila La Salveren esku jartzen ditu, legamien bilakaera kontrolatzeko probak egiteko.

Inbertsioak egin behar izan dira Bilboko lantegia ekoizpen-prozesu berrira egokitzeko. La Salvek 2.500 litroko 10 hartzidura-tanke independente ditu, eta horrela, egosketa bat egiten denean tanga bat betetzen da. Legamia berrerabilgarriak sartu, hartzidura-prozesua amaitu eta garagardo hori botiletan sartzean, tangako legamiak berreskuratu eta tanga estanko txikiago batean gordetzen dira, gero hurrengo hartzidura-prozesuan sartzeko. Horretarako, 2020ko irailean, industria-mailako egokitzapenak egin dira, legamia freskoak hartzidura-tangetatik aipatutako tanga estankoetara eraman ahal izateko, sarrera- eta irteera-konexio batzuen bidez; horrela, konexio horien bitartez, legamia freskoak hartzidura-tangara sar daitezke berriro. Urrian eta azaroan ekoizpen-probak egiten hasten dira, eta 2012eko martxoan, egokitzapen horiek prozesuan erabat integratuta geratzen dira.

Kalkuluen arabera, guztira 400.000 euroko inbertsioa egin da, langileen dedikazioa barne.

Gaur egun La Salvek bere produktuetau lau legamia berrerabilgarri horietan oinarrituta ekoizten ditu, eta prozesu hori konpainiaren gainerako produktuetau zabaltzeko asmoa dauka. Horrela sortutako legamien balio-bizitza mugagabea izan daiteke, prozesu bakoitzean birsortzen den lehengai bizia baita.

**Aurrekariak**

Fabrika abian jarri zenetik, La Salvek, garagardogintza osoan bezala, bere ekoizpen-prozesuan erabili eta botatzeko legamia liofilizatuak erabiltzen zituen, hau da, legamia fresko deshidratatuak. Legamia-hautsa da eta hartzidura-ahalmen handia du. La Salvek eta Aztik 2015ean hasitako lankidetzaren ondorioz, zortzi berrikuntza-proiektu identifikatu ziren, eta horien artean garagardoa ekoizteko prozesuan bertan sortutako legamiak berrerabiltzea zegoen.

**Erronka**

Erronka garagardoa ekoizteko prozesuan sortutako legamiak berrerabiltzea da, osagai guztiak gehiago kontrolatzeko eta enpresaren 0 km-ko filosofiari leial izateko. Horrela, produktua merkatuko produktuetau bereizten da, eta ñabardura berriak gehitzen dira La Salveko garagardoak maila organoleptikoan hobetzeko. Era berean, prozesuaren jasangarritasuna areagotzen da eta produkzio-kostuak merkeagoak dira.

**Ekintzak**

- 2015ean, La Salvek, Aztirekin batera, berrikuntza-proiektuen zorro bat identifikatu zuen konpainiarentzat, kalitatezko 0 km-ko garagardoak ekoizteko eta merkatutzeko enpresaren oinarritzko balioekin bat eginda. Identifikatutako proiektuen artean legamia propio berrerabilgarriak sortzea zegoen.
- 2019an, La Salvek legamia berrerabilgarrien proiektua abian jartzeko erabakia hartu zuen, eta berrerabiltzeko egokienak diren legamiak eta haien behar bezala mantentzeko baldintzei buruz ikertzen du.
- 2020ko maiatzean, La Salvek baterako lana hasi zuen Mahou-San Miguel (La Salve enpresaren kidea) enpresaren Burgosko lantegiko teknikari eta garagardogile maisuarekin, produkzio-prozesuan sortutako legamiak egonkortzeko eta kontrolatzeko laborategiko probak eta analisiak egiteko.
- 2020ko irailean, industria-mailako egokitzapenak egiten dira, eta tanga estankoak ipintzen dira ekoizpen-prozesutik ateratako legamiak mantentzeko, eta sarrera- eta irteera-konexioak ipintzen dira batzuen bidez; horrela, konexio horietatik legamia atera eta hartzidura-

tangetan sartzen da.

5. 2020ko urrian eta azaroan, ekoizpen-probak hasten dira, eta legamiak atera eta gehitzeko prozesuetan egokitzapenak dira.

6. 2021eko martxoan, enpresaren lau produktu ekoizten dira legamia berrerabilgarrietan oinarrituta. Legamia horien zikloa iraunkorra izan daiteke, eta egindako kontroletan agerian geratzen da legamiak badaukala hartzidurarako bideragarritasun egokia.

## Lortutako emaitzak

- Emaitza nagusia da berezko sorkuntzako legamia berrerabilgarriak lortzea, zeinek ahalbidetzen baitute La Salveren berezko 0 km-ko printzipioa ekoizpen-prozesura eramatea, eta, horrela, enpresa-proiektuaren eta markaren garapenaren ikuspegia betetzen dute. Proiektu horrekin, enpresaren ekoizpen-prozesua ingurumenaren aldetik jasangarriagoa da, eta, beraz, enpresaren karbono-arrastoa gutxitzen du eta prozesua eraginkorragoa eta errentagarriagoa da.
- Ekoizpen-prozesuan legamia berrerabilgarriak erabiltzeak ñabardura berriak ematen ditu eta kontsumitzaileari eskainitako azken produktua organoleptikoki hobetzen dute, eta azkenik, La Salve garagardoen kalitatea hobea da.
- Ekoizpen-kostuak txikiagoak izatea lortzen da, prozesuaren funtsezko lehengai bat berrerabiltzen delako; horrek errentagarritasuna handiagoa ekartzen dio enpresari. Zehazki, ziklo iraunkorretan legamiak berrerabiltzen direnez, ohiko erabilerako legamien kostuan % 80 inguru aurrezten da.
- Muztioaren hartziduraren denbora % 50 murriztea lortzen da. Legamia liofilizatuekin hartziduratik bi astekoa zen; prozesuan sortutako legamia berrerabilgarriak erabiliz, ordea, hartzidura astebetekoa da.

---

## KASUAREN KATEGORIZAZIOA

---

### Berrikuntza-eremuak:

- Prozesua: Ondasunak ekoiztea eta zerbitzuak ematea.

### Aukera arloak:

- 1 - Trantsizio energetiko/klimatikoa

Eduardo Saiz Lekue (Cervezas La Salveko zuzendaria)

«La Salvek tokikoarekiko eta berrikuntzarekiko konpromisoa oso barneratuta dauka, lehiakortasunaren bultzatzaile garrantzitsu gisa. Berrikuntza balio erantsia da teknologian, eta zeharkako balio erantsia ere bada gure prozesu guztietan eta negozio-ereduan»

Jon Ruiz Ibinarriaga (La Salve Bilbao lantegiko zuzendaria)

«Enpresan gure ingurunearekin konprometituta gaude. Sektorean erreferentea izan eta hemen ekoiztu nahi dugu, La Salve Bilbo delako, Euskadi delako».

Innovation Index Score: ★★☆☆★

Lerrokatze estrategikoa: ★★☆☆★

Kreatibitatea: ★★☆☆★

Kolaborazioa eta hibridazioa: ★★☆☆★

Sistematizazioa: ★★☆☆★

Eraginkortasuna emaitzetan: ★★☆☆★

Efizientzia emaitzetan: ★★☆☆★

Erreplikagarritasuna eta transferigarritasuna: ★★☆☆★

★

Eragina: ★★☆☆★

Aintzatespena: ★★☆☆★